Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko urtarrilaren 25a, osteguna — 18 — Jueves, a 25 de enero de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HERNANIKO UDALA

*Iragarkia*

Hernaniko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Hernaniko Hirigune Historikoko etxebizitzetan leihoak aldatzeko diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak onartu ditu. Hortaz, aipatutako oinarriak argitaratzen dira eta izena emateko epeari hasiera ematen zaio.

— Eskabideak aurkezteko epea eta dokumentazioa: Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren hurrengo egunetik hasita 2018ko abenduaren 31 arte edo diru-laguntza emateko aurrekontua amaitzen den unera arte.

— Oinarriak eta inprimakiak: Hernaniko Udaleko Herritarren Harrerako Zerbitzuan, web orrian: www.hernani.eus, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

— Eskaerak aurkezteko tokia: Hernaniko Udaleko Herritarren Harrerarako Zerbitzuan.

Oinarrien onarpenaren erabakien kontra honako errekurtso hauek jar daitezke:

— Administrazioarekiko auzi errekurtsoa Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

— Berraztertzeko errekurtsoa (aukerakoa) udaletxean, lehen aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete baten barruan.

*Hernaniko hirigune historikoko etxebizitzetan leihoak aldatzeko diru-laguntzak arautuko dituen oinarri erregula¬tzaileak.*

### I KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

Deialdi honen helburua Hernaniko Hirigune Historikoko etxebizitzetako kanpoaldeko arotzia kristalduna (leiho eta ateleihoak) berrituz –isolamendu akustikoa hobetu eta energia kontsumoa murriztuz– etxebizitzetako bizigarritasun baldintzak hobetzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea da.

*2. artikulua. Organo eskuduna.*

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da Alkateak 2015eko urriaren 2an emandako eskuordetze Dekretuaren arabera.

*3. artikulua. Aurrekontuko diru hornidura.*

Deialdi honen helburuak lortzeko 9.000 euroko diru kopurua aurreikusi zen 2016ko ekitaldiko Aurrekontuaren ondorengo partida honetan: 02.480.01.150.10 «Dirulag. Etxebizitza birgaitzeko obrak».

*4. artikulua. Interpretazioa.*

Diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantzari buruz erabakitzea.

## AYUNTAMIENTO DE HERNANI

*Anuncio*

Aprobadas las bases para la concesión de subvenciones para sustitución de ventanas en el Casco Histórico por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Hernani, en sesión celebrada el 29 de diciembre de 2017, se procede a su publicación y a la apertura del plazo para la presentación de las solicitudes:

— Plazo de presentación de solicitudes y documentación: Desde el día siguiente a la publicación de las bases y convocatoria en el Boletin Oficial de Gipuzkoa y finaliza el 31 de diciembre de 2018 o en el momento de producirse el agotamiento del presupuesto destinado a este efecto.

— Bases e impresos: Oficina de atención a la ciudadanía del Ayuntamiento de Hernani, web municipal: www.hernani.eus y Boletin Oficial de Gipuzkoa.

— Lugar de presentación de las solicitudes: Oficina de atención a la ciudadanía del Ayuntamiento de Hernani.

Contra los acuerdos de aprobación de las citadas bases, se podrán interponer los siguientes recursos:

— Recurso Contencioso Administrativo ante el Juzgado de los Contencioso Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

— Recurso de Reposición ante este Ayuntamiento (con carácter potestativo), previo al Recurso señalado en el apartado anterior, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

*Bases reguladoras de concesión de subvenciones para sustitución de ventanas en viviendas del casco histórico.*

### CAPÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de la presente convocatoria es la regulación de la concesión de subvenciones orientadas a la mejora de condiciones de habilitabilidad de las viviendas del Casco Histórico de Hernani –con el objeto de mejorar el aislamiento acústico y reducir el consumo de energía– por medio de la sustitución de carpintería exterior acristalada (ventanas y puerta ventanas).

*Artículo 2. Órgano competente.*

El órgano competente para la aprobación de estas bases es la Junta de Gobierno Local en virtud del Decreto de Alcaldía de fecha 2 de octubre de 2015, de delegación de competencias.

*Artículo 3. Dotación presupuestaria.*

Para la consecución de los objetivos de la presente convocatoria se destinó la cantidad de 9.000 euros del presupuesto del Ayuntamiento de Hernani del año 2016 con cargo a la partida 02.480.01.150.10 «Subv. Rehabilitación viviendas».

*Artículo 4. Interpretación.*

Cualquier duda que pudiera surgir en torno a la interpretación de estas bases será resuelta por el órgano competente para la concesión de la ayuda.

EK\CV GAO-I-2018-00425

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua, aplikatuko dira.

*5. artikulua. Publizitatea.*

Deialdia, oinarri arautzaileak eta haien babesean emandako diru-laguntzak udalaren web orrian www.hernani.eus eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean) argitaratuko dira, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 9 artikuluarekin bat etorriz.

II KAPITULUA

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN ESKU HARTZEAK ETA ONURADUNAK

*6. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.*

Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagungarriak izan daitezkeen jarduketak puntu honetan sartuta dauden jarduketa guztiak izango dira, betiere 2016, 2017 eta 2018 urteetan burutu badira, eta udalaren lizentzia/baimena baldin badute.

Zehazki, diruz lagungarriak izan daitezkeen jarduketak Hernaniko hirigune historikoko etxebizitzetan kanpoaldeko arotzia kristalduna (leihoak eta ate-leihoak) berritzea dira.

Jarriko den kanpoaldeko arotzia kristaldun berriak honako ezaugarri hauek izango ditu:

* EB marka eduki beharko dute.

* Kristal bikoitzek isolamendu termiko sendotua (ATRI) duten beirak izango dituzte, 1,40 $W/m^2K$-ko edo txikiagoko transmitantzia termikoarekin (Ug) eta gutxienez 30 dB(A)-koa izango da aireko zaratarekiko isolamendua.

* Arotzia berrituko den bao guztiak etxebizitzaren kanpoaldeko itxituretan egon beharko dira eta ez dira diruz lagunduko etxebizitzaren barrualdeko itxituretan dauden leihoak.

* Jarduketek nahitaezko udal lizentzia/ baimena izan behar dute.

* Etxebizitzak Hernaniko Hirigune Historikoan, Birgaikuntza Integratuko Arearen barruan kokatuko dira (ikusi eremuaren mugaketa 1go eranskinean).

*7. artikulua. Diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak.*

Itxitura kristaldunak berritzeko laguntzaren guztizko zenbatekoa kontzeptu horregatik egindako inbertsioaren diruz lagun daitekeen kostuaren % 25 izango da, ez itzultzekoa. Diruz lagun daitekeen gehienezko kostu hori 400 €/ leiho $m^2$ bakoitzeko izango da, eta betiere, diru-laguntza gehienez 1.000 eurokoa izango da onuradun eta etxebizitza bakoitzeko.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren kalkuluan leihoen kostuak oro har eta baita haien instalaziotik etorritako igeltserotza lanaren kostuak ere sartu daitezke.

Era berean, ez dira diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko:

* Erositako ondasunengatik edo fakturatutako zerbitzuengatik ordaindutako BEZa eta, oro har, beste edozein zerga.

* Kanpoaldeko arotzia kristalduneko osagairen bat konpontzeko edo ordezkatzeko lan hutsak direnak.

* Kontraleihoak bezalako osagaiak edo antzekoak, pertsiana motorrak, eltxo sareak, esetokiak, barandak, eta abar.

* Eta oro har, argi eta garbi definituta ez dauden gastuak eta helburu zuzena oinarri hauen helburuak betetzen ez dutenak.

En todo lo no previsto en las presentes bases se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, en sus redacciones siguientes.

*Artículo 5. Publicidad.*

Las bases reguladoras serán publicadas en la página web municipal www.hernani.eus y en el Boletin Oficial de Gipuzkoa (Boletin Oficial de Gipuzkoa) de acuerdo con el art. 9 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

CAPÍTULO II

ACTUACIONES SUBVENCIONABLES Y PERSONAS BENEFICIARIAS

*Artículo 6. Actuaciones y costes subvencionables.*

A efectos de la presente convocatoria, tendrán la tendrán la consideración de actuaciones subvencionables todas aquellas actuaciones incluidas en este punto llevadas a cabo durante los años 2016, 2017 y 2018 y que cuenten con licencia/autorización municipal.

Específicamente tendrán la consideración de actuaciones subvencionables, la renovación de carpintería exterior acristalada (ventanas y puerta ventanas) en viviendas del casco historico de Hernani.

La nueva carpintería exterior acristalada a instalar deberá cumplir las siguientes características:

* Deberán contar con marcado CE.

* El doble acristalamiento deberá estar formado por vidrios con aislamiento térmico reforzado (ATR) con un valor de transmitancia térmica (Ug) inferior o igual a 1,40 $W/m^2K$ y supondrá un aislamiento al ruido aéreo mínimo de 30 dB(A).

* Todos los huecos deberán formar parte de los cerramientos a exterior de la vivienda, no siendo objeto de subvención aquellas ventanas ubicadas en los cerramientos interiores de la vivienda.

* Las actuaciones deberán contar con la preceptiva licencia/ autorización municipal.

* Las viviendas estarán ubicadas en el Casco Histórico de Hernani, dentro del Área de Rehabilitación Integrada (ver delimitación en el anejo 1).

*Artículo 7. Cuantía máxima de las subvenciones y gasto subvencionable.*

La cuantía total de la ayuda por la renovación de cerramientos acristalados será de un 25 % del gasto subvencionable de la inversión realizada por dicho concepto, siendo este gasto máximo subvencionable de 400 €/$m^2$ ventana con un máximo de 1.000 euros por persona beneficiaria y vivienda.

En el cálculo de gasto subvencionable, se podrá incluir tanto los costes de las ventanas en su conjunto, así como los costes de albañilería derivados de la instalación de las mismas.

Asimismo, no se considerará gasto subvencionable:

* El IVA satisfecho por la adquisición de bienes o servicios facturados y, en general, cualquier tributo.

* Las actuaciones conceptuadas como mera reparación o sustitución de algún componente específico del cerramiento acristalado.

* Componentes tales como contraventanas o similares, motores de persiana, mosquiteras, tendederos, barandillas, etc.

* Y en general todos aquellos gastos que no estén claramente definidos o que no tengan por finalidad directa la consecución de los objetivos de las presentes bases.

EK\CV GAO-I-2018-00425

*8. artikulua. Onuradunak.*

Diru-laguntza hauen onuradunak izateko aukera izango dute, Hernaniko Hirigune Historikoko ohiko okupazioko etxebizitzaren jabe, gozamendun edo maizter diren pertsona fisikoak; beti ere, etxebizitza horretan leihoak oinarri hauetan jasotako baldintzetan aldatu badira.

Ezingo dira onuradun izan:

* Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.

* Udalarekin zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituztenak. Egiaztapena ofizioz egingo da.

*9. artikulua. Beste diru laguntzekiko bateragarritasuna.*

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorritako beste edozein diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderekin.

Beste laguntza batzuekin elkartuz gero, guztien kopuruak ezin izango du diruz lagundutako jardueren kostua gainditu. Bestela, beharreko kopuruan murriztuko da deialdi honen kargura emaniko diru-laguntza.

III KAPITULUA

PROZEDURA

*10. artikulua. Diru laguntzak emateko prozedura.*

Oinarri hauetan aurreikusten diren diru laguntzak norgehiagokako prozedura erraztuaren bidez tramitatuko dira, diru laguntzen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, ezin delako denborazkoa ez den beste lehentasun-irizpiderik ezarri. Horregatik, epe barruan eskaerak aurkeztu ahala tramitatu eta ebatziko dira, beti ere aurrekontu-kreditua dagoen bitartean.

Kreditua agortu dela Udal web orrian (www.hernani.eus) jakinaraziko da.

Nolanahi ere, dirulaguntza eskaera handia egongo balitz, Hernaniko Udalak aurrekontua handitu dezake, baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartu ahal izateko.

*11. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.*

Eskaerak aurkezteko epea Oinarriak eta Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren hurrengotik hasi eta, 2018ko abenduaren 31a arte edo diru-laguntza emateko aurrekontua amaitzen den unera arte luzatuko da.

Diru laguntza eskabide osoak aurkeztuta eta bideratzen egongo diren arren, bazter egingo dira, baldin eta esleitutako aurrekontua agortzen bada, organo eskumendunak emango duen ebazpenaren bidez.

Nolanahi ere, dirulaguntza eskaera handia egongo balitz, Hernaniko Udalak aurrekontua handitu dezake, baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartu ahal izateko.

Esleitutako aurrekontua agortzen ez bada, aurrez adierazitako epea luzatua ahal izango da eskumendunak emango duen ebazpenaren bidez. Ebazpena udalaren web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*Artículo 8. Personas beneficiarias.*

Podrán acceder a la condición de personas beneficiarias, a los efectos de la presente convocatoria, todas aquellas personas físicas propietarias, usufructuarias o arrendatarias de la vivienda de ocupación habitual ubicada en el Casco Histórico de Hernani, en la que se proceda a la sustitución de ventanas en los términos detallados en estas bases.

No podrán obtener la condición de persona beneficiaria:

* Aquellas en que concurran en algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 y 3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

* No hallarse al corriente de las obligaciones tributarias municipales. La comprobación se realizara de oficio.

*Artículo 9. Compatibilidad con otras subvenciones.*

Las subvenciones previstas en las siguientes bases serán compatibles con cualesquiera otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera otras Administraciones o entes públicos o privados.

En el caso de concurrencia con otras ayudas, el conjunto de las mismas no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En caso contrario, se procederá a la minoración de la subvención concedida con cargo a la presente convocatoria en la cantidad que corresponda.

CAPÍTULO III

PROCEDIMIENTO

*Artículo 10. Procedimiento de concesión.*

La concesión de las ayudas previstas en las presentes bases se tramitarán a través del procedimiento simplificado de concurrencia, en cuanto que por la naturaleza y características de las mismas, no puede establecerse otro criterio de prelación entre ellas que no sea el temporal, dentro del plazo previsto, siendo tramitadas y resueltas conforme se vayan presentando las solicitudes, en tanto se disponga de crédito presupuestario para ello.

El agotamiento del crédito dispuesto será publicitado en la web municipal (www.hernani.eus).

No obstante, en caso de una importante demanda de subvenciones, el Ayuntamiento de Hernani podrá ampliar la dotación presupuestaria existente con el fin de atender a la totalidad de las solicitudes presentadas que cumplan los requisitos.

*Artículo 11. Plazo y modo de presentación de solicitudes.*

El plazo para la presentación de las solicitudes se inicia al día siguiente de la publicación de las Bases y la Convocatoria en el Boletin Oficial de Gipuzkoa y finaliza el 31 de diciembre de 2018 o en el momento en que se agote la dotación presupuestaria destinada a este efecto.

Las solicitudes que estuvieran ya presentadas completas y en tramitación, que no pudieran ser atendidas por agotamiento de la dotación presupuestaria asignada, serán denegadas, por tal motivo, mediante resolución del órgano competente.

No obstante, en caso de una importante demanda de subvenciones, el Ayuntamiento de Hernani podrá ampliar la dotación presupuestaria existente con el fin de atender a la totalidad de las solicitudes presentadas que cumplan los requisitos.

En caso de que no se agote la partida presupuestaria, se podrá ampliar el plazo anterior mediante resolución del órgano competente, que se publicada en la página web municipal y en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2018-00425

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonek, deialdian jasotakoari jarraiki, Hernaniko Udalaren Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ) eskuragarri jarriko den eskaera-orri ofiziala behar bezala jasota bertan aurkeztu beharko dute.

*12. artikulua. Eskabideak: dokumentazioa.*

Diru-laguntzak hauek jaso ahal izateko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte eskatzaileek:

* Dirulaguntza eskabide normalizatua, bete eta sinatua.

* Onuradunaren NAren fotokopia.

* Eskatzailearen kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.

* Leihoak berritzeko egindako inbertsioa egiaztatzen duen faktura xehea. Honako kontzeptu hauek jasoko ditu gutxienez:

— Berritze lanaren deskribapen laburra, berritze hori egingo den helbidea zein den zehaztuta.

— Berritze kontzeptuaren barnean jasotako partidak behar bezala banakatuak.

— Jarritako arotziaren memoria (nahitaez azaldu behar dira jarritako arotzia mota eta beira mota).

— Berritutako leihoetako bakoitzaren neurriak.

Fakturak ez baditu adierazitako kontzeptu horiek jasotzen, harekin lotuta dagoen aurrekontua aurkeztu beharko da eta aurrekontuan agertu egin beharko dute kontzeptu horiek, dagokion instalatzaileak sinatua eta zigilatuta.

* Jarritako leihoen ezaugarriak egiaztatzeko dokumentazioa:

— Erabilitako beiretako transmitantzia termikoaren entseguen (Ug) emaitzak.

— Isolamendu akustikoaren bereizgarria.

— Jarritako beirak justifikatzen dituzten eranskailuak.

— Jarritako leihoen EB marka egiaztatzen duten etiketak.

Nolanahi ere, aurkeztutako instalazioari/jarduerari dagokion dokumentazioaz gainera, Udalak egokitzat hartzen duen informazio osagarri osoa eskatu ahal izango die eskatzaileei aurkeztutako instalazioa/jarduera baloratu ahal izateko.

*13. artikulua. Akatsak zuzentzea.*

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

*14. artikulua. Bideratzea.*

Espediente hauek tramitatzea eta diru laguntzak ematea Hirigintza eta Ingurumen departamentuko Hirigintza atalaren ardura izango da. Aipatu Unitateak ofizioz egin ahal izango ditu ebazpen-proposamena burutzeko datuak ezagutu edota frogatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

*15. artikulua. Ebazpena.*

Diru laguntzak ebazteko organo eskuduna Alkatea izango da. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabidea egin denetik aurrera kontatzen

Quienes deseen optar a estas ayudas deberán presentar una solicitud cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial existente en el Servicio de Atención Ciudadana (HHZ) del Ayuntamiento de Hernani, según lo establecido en la convocatoria.

*Artículo 12. Presentación de solicitudes: documentación.*

Para optar a las presentes ayudas deberá presentarse la siguiente documentación:

* Solicitud de subvención normalizada, debidamente cumplimentada y firmada.

* Fotocopia del DNI de la persona beneficiaria.

* Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente del solicitante.

* Factura detallada justificativa de la inversión en renovación de ventanas, que deberá incluir, como mínimo, los siguientes conceptos:

— Breve descripción de la renovación, indicando el domicilio objeto de la renovación.

— Desglose de las partidas incluidas dentro del concepto de renovación.

— Memoria de la carpintería colocada (imprescindible tipo de carpintería y tipo de vidrios colocados).

— Medidas de cada una de las ventanas renovadas.

En caso de que la factura no contenga los conceptos indicados, deberá ir acompañada del presupuesto al que haga referencia y en el cual se vean dichos conceptos que deberá estar firmado y sellado por el instalador correspondiente.

* Documentación que acredite las características de las ventanas colocada:

— Resultados de los ensayos de transmitancia térmica de los vidrios utilizados (Ug).

— Características de aislamiento acústico.

— Pegatinas justificativas de los vidrios instalados.

— Etiquetas justificativas de marcado CE de las ventanas instaladas.

En todo caso, además de la documentación relativa a la instalación/actividad que fuera presentada, el Ayuntamiento podrá requerir a los solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la instalación/ actividad presentada.

*Artículo 13. Subsanación de errores.*

Cuando la solicitud de subvención o la documentación que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a la persona interesada un plazo de diez días contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento para subsanar los defectos detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

*Artículo 14. Instrucción.*

La instrucción de los expedientes de concesión de estas subvenciones corresponderá a la Unidad de Urbanismo del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente. Dicha Unidad realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

*Artículo 15. Resolución.*

El órgano competente para resolver sobre las ayudas solicitadas es el Alcalde. El plazo máximo para dictar y notificar la resolución del procedimiento será de tres meses a contar desde

EK\CV GAO-I-2018-00425

hasita. Epe horren barnean ebazpenik eman ez bada, eskabidea baztertua izan dela ulertuko da, tarte jarri ahal diren administrazio-helegiteei begira.

Eskaera aurkezteak ez du berez ematen diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta diru-laguntza orori dagokion hautazko izaera izango du kontzesio horrek ere.

Diru-laguntza ematea edo ez ematea erabakiko duen Alkatearen Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabete bateko epean, eman zuen organo beraren aurrean, edo bestela, Donostiako Administrazio-auzietarako Epaitegiaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

*16. artikulua. Diru laguntza ordaintzea.*

Ordainketa bakarrean emango da diru-laguntza, ebazpenean finkatutako zenbateko guztia ordaindurik, pertsona onuradunak aurrez jarduera burutzea justifikatu badu.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, hura bakarrik hartuta edo beste Herri Administrazio batzuen edo beste Erakunde Publiko edo pribatu batzuen beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin batuta, ez da, inola ere, onuradunak egindako instalazioaren edo jardueraren kostua baino handiagoa izango.

Jarduerak, diru-laguntzarekin ez ezik, funts propioekin edo beste diru-laguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, funts horien zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira eta diruz lagundutako jardueretarako erabili direla egiaztatu beharko da justifikazioan.

IV. KAPITULUA

KONTROLA ETA PUBLIZITATEA

*17. artikulua. Diru laguntzen publizitatea.*

Diru laguntzen publizitateari dagokionean, bete egingo da azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. eta 20. artikuluek eta abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluak xedatutakoa.

*18. artikulua. Ikuskaritza eta kontrola.*

Pertsona onuradunak behartuta egongo dira diru laguntzen kudeaketa zuzena bermatzera bideratuko ziurtatze guztiak erraztera. Eta ezingo die uko egin diru laguntza eman duen organoak egin beharreko ziurtatze jarduketei.

Hernani, 2018ko urtarrilaren 18a.—Luis Intxauspe Arozamena, alkatea. (425)

la presentación de la solicitud. Transcurrido el plazo, sin mediar resolución expresa, se podrán entender desestimadas las solicitudes a los efectos de la interposición de los recursos administrativos procedentes.

La presentación de la solicitud no otorga por sí misma el derecho a percibir la subvención, conservando esta concesión el carácter discrecional, inherente a toda subvención.

La resolución del Alcalde por la que se resuelva la concesión o denegación de subvención pondrá fin a la vía administrativa, pudiendo ser objeto de recurso potestativo de reposición, previo al contencioso administrativo, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó, contado desde la notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso- Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación.

*Artículo 16. Abono de la subvención.*

El abono de la subvención se realizará en un único pago por el importe fijado en la resolución de la misma, previa justificación, por la persona beneficiaria, de la realización de la actuación.

El importe total de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otros Entes Públicos o privados, supere el coste de la instalación o actividad realizada por el beneficiario.

Cuando las actividades hayan sido financiadas además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

CAPÍTULO IV

CONTROL Y PUBLICIDAD

*Artículo 17. Publicidad de las subvenciones.*

A efectos de publicidad de las subvenciones se cumplimentará lo establecido en los artículos 18 y 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, así como lo establecido en el artículo 8 de la Ley 19/2014, de 9 de diciembre.

*Artículo 18. Inspección y control.*

Las personas beneficiarias de las ayudas, estarán obligadas a facilitar las comprobaciones encaminadas a garantizar la correcta realización del procedimiento de gestión de las ayudas. Asimismo, están sometidas a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente.

Hernani, a 18 de enero de 2018.—El alcalde, Luis Intxauspe Arozamena. (425)

EK\CV GAO-I-2018-00425

Hernaniko Udala

**ERANSKINA**

**HERNANIKO HIRIGUNE HISTORIKOKO ETXEBIZITZETAN LEIHOAK ALDATZEKO DIRU-LAGUNTZAK**
SUBVENCIONES PARA SUSTITUCION DE VENTANAS EN VIVIENDAS DEL CASCO HISTORICO DE HERNANI

## **Eskaera-orria /** Instancia-solicitud

**Eskatzailea/**Solicitante:

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Izen-abizenak**/ Nombre y apellidos: | | | |
| **NA**/DNI: | | | |
| **Helbidea**/Domicilio: **Zk.**/Nº: **Solairua**/Piso:<br>**Herria**/Municipio: HERNANI **Atea**/Puerta: | | | |
| **Tel.**: **Mugikorra**/Móvil.: | **E-maila**/e-mail: | | |
| **Kontu korrontearen Zk. (IBAN)**/Nº cuenta corriente (IBAN): | | | |
| **HONAKO HONEN ORDEZ** /en calidad de:<br>**Ohiko okupazioako etxebizitzaren**<br>Relación con la vivienda de ocupación habitual | **Jabea** □<br>Propietario/a | **Gozamenduna** □<br>Usufructuario/a | **Maizterra** □<br>Arrendatario/a |

| |
|---|
| **LEIHOAK ALDATZEKO UDAL BAIMENAREN DATUAK (obra txikiak – I motakoa)**<br>Datos de la licencia municipal para sustitución de ventanas (obra menor – tipo I)<br><br>**Eskatzailearen izen-abizenak** / Nombre y apellidos de solicitante: |
| **Kalea**/Calle.: **Zk.**/Nº.: **Solairua** /Pisua.: **Atea**/Puerta.: |
| **Eskaera data** / Fecha de solicitud: |

| |
|---|
| **Leihoak aldatzeko beste diru-laguntza lortu edo eskatu dira?** / Se ha obtenido o solicitado otra subvención para la sustitución de ventanas: **Bai**/Si.: □ **No**/Ez.: □<br><br>**Erakundea**/Entidad.: **Zenbatekoa**/Importe.: |

**ZINPEKO AITORPENAK. Nire sinadurarekin zinez aitortzen dut**/ Declaraciones juradas. Mediante mi firma declaro que:

□ **Diru-laguntza ematea funtsatzen duen egoeran edo oinarri arautzaileetan aurreikusitako inguruabarrak betetzen dituen egoeran nagoela/** Que me encuentro en la situación que fundamenta la concesión de la subvención o en las que concurren las circunstancias previstas en las bases reguladoras.

□ **Zerga betebeharretan egunean nagoela/** Que me encuentro al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias.

EK\CV GAO-I-2018-00425

Hernaniko Udala

□ **Ez nagoela edonolako diru-laguntzak jasotzea eragozten duen inolako egoeretan/** Que no me encuentro incursa en ninguna circunstancia que me impida recibir cualquier tipo de ayudas.

**SINADURA, LEKUA ETA DATA**/Firma, lugar y fecha:

**Sinadura/**Firma: ……………………………………………………………..

**LEKUA ETA DATA**: **Hernanin,**
Lugar y fecha: En Hernani, a

**Lege oharra: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko:** Hernaniko Udalak jakinarazten dizu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, eman dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Fitxategi horien helburua da Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu –dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu eta kontra agertu-, jo ezazu udaletxeko bulegora.

**Eskatzaileak bere sinadurarekin** baimena ematen du, diru-laguntzen oinarri arautzaileetako 9. artikuluan zehaztutakoari jarraiki, Hernaniko Udalak sail desberdinetan dituen datu baseak kontsultatu ahal izateko eta gainontzeko administrazioekin informazioa trukatzeko oinarritan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

**Advertencia Legal: Protección de Datos de Carácter Personal**: El Ayuntamiento de Hernani, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales que Vd. nos proporciona serán incluidos en los ficheros automatizados de datos de carácter personal titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias. Si lo desea puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a nuestras oficinas.

**La persona solicitante, con su firma,** autoriza, de conformidad con lo señalado en el artículo 9 de las bases reguladoras de las subvenciones, a la consulta de las bases de datos que pueda haber en los distintos departamentos del Ayuntamiento de Hernani y a contrastar los datos con el resto de las administraciones, con el único objetivo de certificar el cumplimiento de los requisitos recogidos en las bases de subvención.

**DOKUMENTAZIOA. Eskari honekin batera dokumentu hauek aurkezten ditut:**
DOCUMENTACIÓN. Presento junto a solicitud la siguiente documentación:

□ **Onuradunaren NAren, pasaportearen edo Egoitza-txartelaren fotokopia** /Fotocopia del DNI, pasaporte o tarjeta de residencia de la persona beneficiaria.

□ **Eskatzailearen Kontu Korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria** /Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente de la persona solicitante.

□ **Faktura xehea (beharrezkoa bada aurrekontua ere)** /Factura detallada (y presupuesto en caso necesario).

□ **Jarritako leihoen ezaugarriak egiaztatzeko dokumentazioa** /Documentación que acredite las características de las ventanas colocadas.

EK\CV GAO-I-2018-00425